

# Babes-politikak

# 12. Babes-politikak

12.1 | **Tutoretzapean dauden adingabeen kopurua**

12.2 | **Egoitza-harreran hartutako adingabeen kopurua**

12.3 | **Familia-harreran hartutako adingabeen kopurua**

12.4 | **Adingabeen adopzioen kopurua**

12.5 | **Emantzipazio-etxebizitzetako plazen eta erabiltzaileen kopurua**

## 12.1. Tutoretzapean dauden adingabeen kopurua

Abenduaren 31n, Aldundiaren tutoretzapean dauden adinez txikikoen zenbatekoa. Tutoretza, haur edo nerabe bat babesgabetasun-egoeran dagoela hauteman eta gero, adingabearen gurasoei guraso-agintetik aldi baterako kentzea komenigarria dela uste den kasuetan hartzen den babes-neurria da. Ez dira larrialdiko egoeretan erabaki diren behin-behineko tutoretzak kontuan hartzen.

**Iturria:** Haur eta Nerabeen Euskal Behatokia

**Maiztasuna**: Urtekoa **Azken datua:** 621 pertsona (2021)

### Emaitza nagusiak

**Adierazlearen bilakaera Gipuzkoan**




**Lurraldeen arteko konparaketa. 2021**

(0-17 urte bitarteko 1.000 biztanleko tasa)



## 12.2. Egoitza-harreran hartutako adingabeen kopurua

Abenduaren 31n, adinez txikikoei zuzendutako egoitzetako erabiltzaile diren pertsonen zenbatekoa. Beren etxeetan jarraitzeko aukerarik ez duten adingabekoei zuzendutako babes-neurri bat da eta, horri esker, beren premia eta beharrizanak gogobeteko eta aseko dituen egoitza eta bizikidetzarako leku bat eskaintzen zaie adingabekoei.

**Iturria:** Behagi. Gipuzkoako Gizarte Behatokia

**Maiztasuna**: Urtekoa **Azken datua:** 348 pertsona (2021)[17]

### Emaitza nagusiak

**Adierazlearen bilakaera Gipuzkoan**




**Sexuaren araberako desagregazioa Gipuzkoa, 2021**




**Lurraldeen arteko konparaketa. 2021**

(0-17 urte bitarteko 1.000 biztanleko tasa)




[17] **Oharra:** Araba, Bizkaia eta Euskadiko datuak Haur eta Nerabeen Euskal Behatokitik jaso dira.

## 12.3. Familia-harreran hartutako adingabeen kopurua

Abenduaren 31n, familia-harreran dauden adinez txikiko pertsonen zenbatekoa. Familia-harrera legezko neurri baten bidez beren familietatik banatu diren eta dituzten ezaugarri edo berariazko beharrak direla-eta, familia batek behar bezala zaindu ditzakeen haurrei zuzenduta dago; era horretan, saihestu egiten da adingabeak egoitza-baliabide batean sartzea, eta ahalik eta ingurune normalizatuen, egonkorren eta gizartekoiena aurkitzeko aukera ematen zaie.

**Iturria:** Behagi. Gipuzkoako Gizarte Behatokia

**Maiztasuna**: Urtekoa **Azken datua:** 328 pertsona (2021)[18]

### Emaitza nagusiak

**Adierazlearen bilakaera Gipuzkoan**




**Motaren araberako desagregazioa Gipuzkoa, 2021**




**Lurraldeen arteko konparaketa. 2021**

(0-17 urte bitarteko 1.000 biztanleko tasa)




[18] **Oharra:** Araba, Bizkaia eta Euskadiko datuak Haur eta Nerabeen Euskal Behatokitik jaso dira.

## 12.4. Adingabeen adopzioen kopurua

Urtean zehar burutu diren adinez txikiko pertsonen adopzioen zenbatekoa. Adopzioa haurrak babesteko neurri bat da, epailearen ebazpenez gauzatzen dena: haren bidez, adopzio-hartzailearen eta adoptatua denaren artean sortzen diren seme-alabatasuneko loturak eta seme-alabatasun naturalekoak berdin-berdinak dira, adoptatuaren eta bere familia naturalaren arteko lotura juridikoak ezabatuta. Beraz, behin betiko babes-neurri bat da, atzera bota ezin dena.

**Iturria:** Behagi. Gipuzkoako Gizarte Behatokia

**Maiztasuna**: Urtekoa **Azken datua:** 7 adopzio (2021)[19]

### Emaitza nagusiak

**Adierazlearen bilakaera Gipuzkoan**




**Motaren araberako desagregazioa Gipuzkoa, 2021**




**Lurraldeen arteko konparaketa. 2021**

(0-17 urte bitarteko 1.000 biztanleko tasa)




[19] **Oharra:** Araba, Bizkaia eta Euskadiko datuak Haur eta Nerabeen Euskal Behatokitik jaso dira.

## 12.5. Emantzipazio-etxebizitzetako plazen eta erabiltzaileen kopurua

Gazteen emantzipaziora bideratutako etxebizitza-baliabideetan eskuragarri dauden plazen zenbatekoa, erabiltzaileen kopurua eta erabiltzaileen batez besteko adina. Emantzipazio-zerbitzua 16 urtetik 23 urte bitarteko gazteentzat da, haien jatorria edozein delarik ere, eta xedetzat du gazte horiek "bizitza independenterako prestatzea, egoitza harrerako zentrotik irtetean familia batean integratzeko modurik ez dagoen kasuetan, horiei ohiko bizimodu autonomoaren antzeko edo hurbileko bizikidetza testuinguru bat eskainiz, zeinak autokudeaketa bidez funtziona baitezake; gainera, aintzat hartuko dira hezkuntza, prestakuntza edotako lan orientazioa eta laneratzea bera, bizitza soziolaboralean integratzeari begira".

**Iturria:** Gipuzkoako Foru Aldundia. Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzua

**Maiztasuna**: Urtekoa **Azken datua:** 40 plaza; 33 erabiltzaile abenduaren 31n; 56 erabiltzaile urtean zehar; batez besteko adina 17,7 urte (2021)[20]

### Emaitza nagusiak

**Adierazleen bilakaera Gipuzkoan**

| | Plaza kopurua | Erabiltzaileak 12/31n | Erabiltzaileak urtean | Batez besteko adina |
|---|---|---|---|---|
| 2018 | 40 | 26 | 26 | 17,4 |
| 2019 | 40 | 40 | 75 | 17,7 |
| 2020 | 40 | 32 | 69 | 17,8 |
| 2021 | 40 | 33 | 56 | 17,7 |

[20] **Oharra:** Gipuzkoako datuak Zerbitzuko memoriatik jasotakoak dira. Emantzipaziorako zerbitzu hau 2018an jarri zen abian, horretarako zentro espezifikoak irekiz.